

## AURKEZPENA

Gaur egun, ingurugiroko kutsadura maila erabat larritzekoa da, oso maila altuetara iritsi da, eta egoera jasanezina bilakatu da. Gizakiak izugarrizko hondamendiak eragin ditu jadanik, eta hau atzera bueltatzea ezinezkoa den arren, gizakiak sortutako kalteak inpaktu txikiagoa izatea lortu nahi dugu.

Ingurugiroa suntsitzen duten egoerek, besteak beste, hondartzetan izugarrizko inpaktu negatiboa izan dute, pilatzen diren hondakin guztiak itsasoan amaitzen baitute, eta honek gizakion eta planetaren gain eragiten dituen kalteak gelditu egin behar dira, arazo hutsa besterik ez baitira. Horregatik, gure egitasmoa Donostiako hondartzan garbiketan datza.



Ingurunearekiko izan behar dugun konpromezua areagotu behar dugula iruditzen zaigu, jendea gaiarekin gehiago kontzientziatuz. Denok batera garbiketa aurrera eramanez arazoak konpontzen saiatuko gara.

Gu, Urretxu eta Zumarragako neska-mutil talde bat gara, "Fosforito" talde bezala aurkeztuko gara Start Innovako proiektura. Gu Eder Otaegi, Nora Blazquez, Iñaki Urteaga, Miren Arsuaga eta Adam Ouafa gara. Ekintza hau bereziki Euskal Herriko hondartzak edota hasiera batean Donostiakoak garbi mantentzeko prest daudenei zuzendua dago. Eta, zergatik Donostian? Gipuzkoako hiriburuak 3 hondartza dituen eta jende ugari joaten denez egunerokotasunean, egitasmoak jende asko erakarriko du eta gainera, gugandik oso hurbil dago eta hasiera baterako toki aproposa iruditzen zaigu. Proiektuak arrakasta izanez gero, Euskal Herriko kostaldera zabalduko genuke.



Idea hau, udarako arratsalde batean Zurriola hondartzan geuden bitartean burutatu zitzaigun. 5ok gara hondartzazaleak, baina batzuetan, atzeraka botatzen gaitu bertan pilatu daitezkeen hondakin guztiak. Horregaitik, oso ideia ona iruditu zitzaigun egitasmo hau aurrera ateratzea, ingurunearentzat eta pertsonentzat onuragarria delako. Etorkizunera begira, egitasmoak kutsadura-maila jaisten lagunduko du, eta horren bidez planetarentzat lasaitasun apur bat izatea espero dugu, Lurra planetaren bihotzean hondakin gutxiago pilatzea eragingo baitugu.